


ARALARKO ITSASOAREN LAREO

Jexux Aizpurua


"Norberak egindako bidea bezalakorik ..."

BAZTERREN berri zeharra jakiteko ez dago artzaia bezalakorik. Zenbat mailarte, zirriztu, txinda, bidetxur, gain eta zoko, malkar eta ordeka, leize eta harpe, laiotz eta egutera, zizaleku eta ... Tximistaketan denean elorria dela babesik garbiena ... Eta han-hemengo zenbat kontu, istorio, siniskeria eta esaunda artzaiengandik jaso ditugunak! Suertez, nahiz eta larre motxeoak izan, hauei esker dakigu, beharbada, euskaldunen lanbiderik zaharrenetarikoa. Ez da gutxi! Ia oraintsu arte artzaiek eta basagizonek ezagutzen zuten leku baten berri eman nahi genuke. Argi eta garbi esan dezakegu leku miresgarri bat jaio zaigula kalezulotarrentzat.



Egilearen argazkia

«Euskal Herriko Mendiak»
gaiari buruzko sariketaren
accèsit, euskaraz.



Errekasto orok, ordea, itsasoa amets dutenez, eguzkiaren itzaltzeari muzin, aintzineria goaz itsaso haundiaren bila.

Baina Baiarrateko trikuharriaren parean bat egin dugu Maizi, Iruerreketa eta hiru errekok. Une batez geld, itaun bat egin diegu geuren buruei: zertan jarraitu itsasorantz auskaloko zehar nekagarrietan? Zertan alferrik ibili Aralarko ur garden garenok inork edo ezerk kutsatzeko beldurrez? Egin dezagun itsaso berria, nahiz eta batzuk osin deitu eta beste batzuek urtegi. Hortxe dugu sakan-gune egokia eta asetzen garenean Sastarriko putreak erakutsiko digu itsasorako bidea.

Horrela sortu omen zen piskanaka Lareoko urtegia, sator, azkonar eta sugeak leku berrien bila zebiltzan bitartean.

DATU INTERESGARRIAK

Hedadura: 20 Ha.
Ur-kopurua: 2'35 Hm.
Goitasuna: 750 m.
Fauna: 60.000 amuarrain.
Artzantza.
1989an amaitua.
GR-20/12/121.

Adituek diotenez, Lareoko urtegia da elementu naturalez eta izadiarekiko begirune osoz egin den bakarrenetakoa. Baina gauzarik nabarmenena uraren garraioan datza. Alde batetik,

bertako ura hoderiez Ubediko leizera isurtzen da Aiaiturrietan jaiotzeko, eta bestetik, gehiegizko ura Malkorburuko leizearen bitartean Agauntza ibaiaren iturburuan agertzen da, horrela ibaiaren ur emanari eutsiz. Xehetasun gehiago jakin nahi duenak eta instalakuntzak ikusi, bertako arduradunarengana jotzea besterik ez dauka. Horretarako, eta ostiraletan izaten dira bixitegunak aurrez 42 35 11 telefonora deituz.



Hontto preziatuaren bila

baina egun gutxi bizi hura era".

Landaredi eta abereak

Inguruok lehenetik animalia eta piztia askoren bizitoki izan dira. zerrenda bat egin hasiko bagina luze gertatuko litzaiguke, baina hara batzuk: azeria, basurdea, basakatu, azkonarra, oreina, orkatza, zapalaria, belea etabar. Eta guztien buru **putrea**. Haueza gain, urtegia egin ezker, ahate eta hegazti asko ari omen da bertarakotzen.

Inguru mitologikoa

Lareo aldea mitologiako hainbat pertsonai eta gertaerarekin zipiritindua dago. Bidean gatzela **Kixmi** azaldutako lekuetatik igaroko gara etabar. Lekuko gisa aipatu dezagun esaunda bat:

(Ataungo euskeran)

"Imatzeneko iru anaia, Ostiela-santuz, mendia io mentzien Ubeiko saroi aen ardi-kin. Ubeiko leizealden zeiltzea, leizetio iru txekorgorri ata ta eana mentzetortzen.

Iru anaiek izututa iesi Agautza gora. Txekorrak atzeti.

Iruetako at Agauzko aldatsa izeneko arraten il ementzan; bigarrena Erremedio inguruan.

Irugarrena itxi ementzan etxea. baiño eun gutxin bizi uere".

(Euskara batuan)

"Imatzeko hiru anaia, Ostiral Santuz, mendira igo omen ziren Ubediko saroi aen euren ardiekin. Ubediko leize aldean zebiltzela, leizetik hiru Txekorgorri atera eta beraingana omen zetortzen. Hiru anaiek izututa iesi Agautza gora. Txekorrak atzetik. Hiruetatik bat Agauzko Aldatsa izeneko harratean hil omen zen; bigarrena Erremedio inguruan. Hirugarrena iritsi omen zen etxera, baina egun gutxi bizi hura era".

Lareoko urtegia, udazkenean

📍 **Naturaren zirikituak. Sastarri**

Armiarmak ez du presarik

Sarrera

Trumoiak isuri nau tximistaren indarrez lurrarenganako amodioa loratzera. Eurianta xume bat besterik ez izanagatik, neri so daude landare eta abereak, noiz lurrertuko naizen zai. Bidean ni bezalako anitz elkarganatu zaizkit eta bat egin dugu behe-rakako bidean. Orain motel gero patxada-tsu, orain bizi eta zalu mailartean zehar haizea zuhaitzaren gana barnertzen den gisara. Doi-doi baina, hasierako tantan-andana murrizta oparotu egin da eta saila osatu dugu. Putxu ginenok erre-kasto bilakatu.



Egilearen argazkiak

1 LIZARROSTI

Gaur egun aterpe pribatu eta garai batean Mikeletetxearen atzetik pagadian sartu behar da bide zabal eta lohitsu batean, eskubitara kobazuloz betetako mailo zuriak beti lagun ditugula. Laster dugu, aurrez-aurre, Malkorburu bideak zertxobait beheka egiten duenean. Bidea bidetxurto zaigu eta errekaaren soinuak iratzartuko gaitu; eskubitara garai bateko tunel polit dugu, egurra garraitzeko edo egindakoa. Horrela jarraituko dugu harik eta erreka ertzera iritsi arte. Hau gurutzatu eta ezkerretara harrobi izandakoaren albotik urtegiaren isurlekuan azalduko gara. Hemendik bi aukera ditugu, bata eskubitara zubiraino jarraitu, ondoko trikuharria ikusi eta urtegiar; bira osoa eman, eta bestea, ezkerraldera joz txabolatik igaroz kontrako bira egin.

**2 ARALEGI**

Hau luzexeagoa bada ere, ederragoa ere bada, noski. Ataundik igota, Aralegi baserritik goraxeago dauden bordak pasatu eta 200en bat metrotara eskubitara pinudian sartzen den mendipista hartu behar da. Lehenago bazen bertatik bidetxur bat, baina gaur egun galduxe dago. Pista ia orduerdi batez jarraitu behar da bidegurutzean ezkerretara hartuz. Puntu honetan Aldasparreneko edo Bosbidetako aterpea dago. Ura bada eta nahiko txukun aurkitzen da. Ezkerretan gora doan bidetxurra jarraituz Aldatsoko askara iritsiko gara. Pagadian sartu eta bideak berak erakutsiko digu gailurraldea. Eskubitara Leizadi, txilarrez jositako lekua dugu hau. Hegiari jarraituz, berehala azalduko zaigu gaina baino lehen behekaldean Lareoko urtegia. Bertaratu baino lehen gainezgain Agautz, Elorreta eta Sastarriko gainak ezagutu ditzakegu. Azkeneko hau putreleku aparta da. Itzulera koan eta baso ertzetik bagatoz, Sastarriko koba ospetsura joateko marrak aurki ditzakegu. Eta hemendik saroi inguruetako trikuharri inguruak dasatuz, erreka zuloa bilatuz Ubediko leizera azalduko gara. Bide honek berak garamatza Lareora.

3 URKILLAGA

Beasaindik datorren bideko 50. kilometrotik, Arrondo auzoko Zubiaurre, Kamiño eta Zubimusu etxeen arteko bidegurutzeko errepide estua hartu behar da, Artzate errekan zehar portu gainera iritsi arte. Aia auzora jarraitu ordez, ezkerretako bidean gora lehenengo bigurgunera iristean bidetxinda hartu behar dugu. Arteak izango ditugu bidelagun puska batean. Piskanaka goragotzen goazen heinean Lizarrusti-Etxegarate arteko Markesene izeneko pago-baso erraldoiari begira denbora galtzeko belurririk ez izan. Urrutian azalduko zaizkigu Andimendi, Aizkorri eta Anboto aldea. Ahuntz-sailen batekin topo egitea ere ez harritu. Pago baten ondoan, berriro baso lasai batean sartuko gara lehenengo txabola bistaratuz. Leizadin gaude. Ba omen ziren hemen trikuharri batzuk, baina arrastorik ez dago. Mendiak, erakutsiko digu Agautz alderako bidea.

Lehen esan ez badugu ere, gailur hauek emango digute parada Ataungo Domo edo Aitzartea oso-osorik ikus ahal izateko. Aralar, berriz, leku guztietan agertzen zaigu. Gaztelu, Ganbo, Nañarri, Pardarri, Igaratza eta Putterri deika bezala agertuko zaizkigu.

◆ **Lareora bideko pasabide zaharra**

Akaitztxiki-Aratz-Baiarrate



4 ELBARRENA

Hau da lauren artean ibilidirik luzeena. Toponimiari eupada bat eman asmoz, izenak soilik aipatuko ditugu:

Elbarrena-Iztator-Irubide-Harkaizpe-Agerre-Iran-Ustatxo-Urdano-Ikandieta-Kanpaintso-Loibekozuloa-Beamakozelaie-Muntxo-Gesalbe-Aldasparrena-Aldatsoko iturrie-Agauzko arratea-Agauzko gaine-Elorreta-Sastarri-Ubei-Lareo-Baiarrate-Naparriturri-Errekabeltz-Matxitxane-Andurio-Intsusti-Aleiko zelaie-Atxuripe-Koai-Lasartekolepoa-Txutiturrieta-Itolatza-Ala-Aiztondo-Arrateta-Auzeta-Harkaizpe-Kalbario Santue-Iztator.


Aurten 30 urte betetzen direnez Intsustiko iturria egokitu zela; Lazkao-txiki bertsolariak garai hartan bertan ezarri zuen bertsoa gogoratu beharrean gaude:

"Aralarpeko babes batean
nago paketsu ta ezti
ur gardenaren betiko otsa
arturik nere abesti
Euskalerriko egarrtuen
edanleku edo titi
Artu maiteok nere laztanak
ezpañak nai ditut busti
Ni bai naiz zuen mendiko ama
maite zaituzten INTSUSTI!"



Alleko mendia Eniriotik

Aralarren mendebaldeko leku bitxi eta eder honen ezagutzeak, izadiarekiko begirune eta onspena areagotzera eraman gaitzala.



RESUMEN

**LAREO
EN BUSCA DEL MAR
DE ARALAR**

EN 1989 se terminó un pequeño pantano, de 20 hectáreas, en el Aralar occidental, entre los montes Alleku y Sastarri. Es lugar de vida de abundantes especies de animales salvajes, dominados en la altura por el vuelo del buitre, y es terreno propicio para inquietantes escenas de nuestra mitología. Después de presentarnos Lareo y sus características, el autor nos describe los cuatro accesos desde Ataun, partiendo de: el puerto de Lizarrosti, el caserío de Aralegi, la cruz de Urkillaga en Aia y Elbarrena en San Martín.